

**DMD-DHE EUSKADIREN URTEKO OHIKO BATZARRAREN AKTA, BILBON 2024KO IRAILAREN
24AN EGINDA.**

32 pertsona bertaratu dira, eta batek Elkartearen posta elektronikora bidali du botoa emateko dokumentua.

AZTERTUTAKO GAIAK:

- 1.- **2023ko** azaroko ohiko batzar orokorraren **akta onartu da**.
- 2.- **2023ko Memoria, Sarrerak eta Gastuak** onartu dira. Diruzainak bi dokumentuen laburpen txiki bat egin du deialdiarekin eta Kutxa Komunaren esanahia azaldu du.
- 3.- Estatuan eta, bereziki, Euskadin, **Eutanasia Arautzeko Lege Organikoaren (LORE) ezarpenari** buruzko txostena azaldu da, baita DMDren balorazioa ere.

2024ko irailaren 24an, Osasun Ministerioak 2022ko txostena baino ez du argitaratu. Zortzi erkidegok ez dute oraindik txostenik aurkeztu. Euskadiko Berme eta Ebaluazio Batzordeak 2023ko txostena argitaratu zuen 2024ko ekainean.

Txostenen balorazioak Euskadiko Asanbladaren deialdiarekin eta oroigarriarekin batera bidali dira, federalak bidali ohi dizkigun komunikazioetan eta seihileko aldizkariaren zenbakietan.

Honako puntu hauek nabarmendu daitezke:

- 3 urte hauetan zehar, pertsona batzuek lortu dute pairatzen duten sufrimendu jasanezina ekiditzea hiltzeko laguntza izan dute beraien nahaiaren arabera. 2021eko Legea baino lehen, sufrimendu hori jasaten eta haientzat bizitza duina ez zen bizitza bizitzen jarraitu behar izango zuten.
- Desberdintasuna legearen aplikazioan autonomia-erkidegoen arabera, eta, horien barruan, lurralde desberdinen artean.
- Aurkeztutako eskaera guztiak erregistratzeko beharra, Berme eta Ebaluazio Batzordeetara iristen ez direnak barne.
- Legean jasotzen diren prozedura-denborak minimotzat hartzen dira, hala ez denean, laburtu egin daitezke hiltzeko laguntza eskatzen duen pertsonaren egoeraren arabera.
- Aldeko txostena lortu aurretik prozeduran zehar hiltzen diren pertsonen kopuru handia.
- Hiltzeko laguntza ukatu zaien pertsonen kopurua, mediku arduraduna, kontsultorea edota EBEBk uste dutelako legeak eskatutako baldintzak ez dituztela betetzen.

- Txostenak funtsean kuantitatiboak dira, baina txosten kualitatiboak ere beharko lirateke, prozesuen balorazio orokor bat, aurkitutako arazoak eta konponbide posibleak bertan zehaztuta
- Herritarrei eskubide zibil eta sanitario berri honen informazioa ez ematea, Osasun Sail bakoitzaren webguneetatik harago.

4.- Elkartearen erronkak

Elkartearen erronkak zehazten joan dira bidaltzen zaizkigun aldizkako komunikazioetan, argitaratutako azken aldizkarietan, LORE aplikazioari buruzko txosten ofizialen balorazioetan eta AFDMDren (Duintasunez Hiltzeko Eskubidea duen Elkarre Federala) 2022-2026 Plan Estrategikoan. Atal hauetan laburbil daitezke:

- **Aurrera egitea norberaren bizitzaren eskuragarritasunean:**
 - a) LOREren aplikazioaren jarraipena eta azterketa kritikoa, gure balorazioa dagokionari azalduz, eta herritarrei informazioa emanez, positiboa denaren alde eginez eta ez-betetzeak, oztopoak eta abar salatuz.
 - b) Eutanasia Arautzeko Lege Organikoan jaso beharreko kasu eutanasiko berriak aztertzea, bizitza burutua esaterako.
 - c) Arreta pertsonalizatua: informazio publiko orokorrari eta, bereziki, bazkideei.
 - d) Elkartearen beraren hedapena, hazkundea, prestakuntza eta funtzionamendu zuzena.
 - e) Heriotza Duinaren behategia

Batzarrera etortzerik izan ez duen Julen lankideak agiri bat bidali du, eta fotokopiak zabaldu dira.

5.- Ohiko Batzar Federalean parte hartzeko mekanismoak.

Jakinarazi da elkarteko talde edo autonomia-erkidego bakoitzeko zuzendaritza-batzordeko pertsonak Ohiko Batzar Federala osatzen dutela, AFDMDren estatutuen arabera.

Batzar Federalean parte hartu nahi duten pertsonak Euskadiko Zuzendaritza Batzordean parte hartzeko aukera hor dute eta horretara animatu zaie.

6.- Euskadiko Batzordea

Gaur egungo Batzordea 2021ean aukeratu zen, 4 urteko eperako. Beraz, 2025ean berritu beharko litzateke. Hala ere, badira urte hauetan zehar dimisioa aurkeztu duten edo normalean parte hartzen ez duten pertsonak. Batzordeari beste bultzada bat eman behar zaio, pertsona berriak sartuz.

7.- Bestelakoak.